

INDARKERIA BAKARRA HAMAIKA MODU

AZAROAK 25
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN
KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA



AZAROAK
25



Baztango
Udala

Indarkeria Matxistaren kontrako Nazioarteko Eguna Baztanen

“Trans egoera. Zorroztu dezagun begirada” mahai ingurua

Azaroak 4, ortzeguna. Arizkunenea Kultur Etxeko sabaian, 18:00etan.

Aitzole Araneta, Brayan Altimasberes eta Mireia Delgado hizlariak, Aintzane Ariztegi dinamizatuta, trans pertsonen egungo egoera aztertuko dute, ikuspuntu eta errealitate desberdinetatik gure begirada zorrozteko.

ANTOLATZAILEAK: Baztango Berdintasun Batzordea eta Baztango Talde Feminista

A25 – Mugimendu Feministak antolatutako Indarkeria matxistaren kontrako mobilizazioa

Azaroak 25, ortzeguna. Elizondoko plazan, 19:00etan.

ANTOLATZAILEAK: Baztango Eragile Feministak

“Esnatu naiz” helduendako antzerkia

Azaroak 21, igandea. Iruritako Gizarte Bilgunean, 19:00etan.

Antzerkia, dantza eta musika nahasten dituen showa da “Esnatu naiz”. Identitatea, giza harremanak eta sexualitatea ditu hizpide, besteak bertze.

ANTOLATZAILEA: Baztango Kultura Batzordea

A25 – Lekaroz Institutuko gazteak ere indarkeria matxistaren kontra

Azaroak 25, ortzeguna. IES Lekaroz, goizean zehar.

Institutuko neska eta mutiko* gazteek sentsibilizazio ekintza desberdinak burutuko dituzte indarkeria matxistaren kontra egiteko.*

ANTOLATZAILEA: Burrumba Morea

AZAROAK 25,
Elkarretaratzea Indarkeria
Matxistaren kontrako Nazioarteko
Egunean

Azaroak 25, ortzeguna, Elizondoko Plazan, 12:00etan

Indarkeria matxisten kontrako elkarretaratzea. Indarkeria matxistekin akitzeko jendarte osoaren konpromisoa eskatzen segituko dugu karriketan. Hurbildu eta erakutsi zure konpromisoa!

ANTOLATZAILEA: Baztango Berdintasun Batzordea

“Bi ero diskotekan” antzerkia

Azaroak 26, ortziralea. Iruritako Gizarte Bilgunean, 19:00etan.

“Bi ero diskotekan” emakume-komedia da, ama-alaben komedia, topaketa, haserreak... baina batez ere umorea ausarki.

ANTOLATZAILEAK: Euskarabidea eta Baztango Euskara Zerbitzua

